1975eko Kermeza Senperen. Ezkerretik eskuinerat : Claude Zamora ; Jean-Louis Mikelajaureguy (ala Ibarra lotizamenduakoa?); Andde Nemery ; Jean-Louis Ithourria ; Gérard Garat (+) ; Jean-Louis Borthaire ; Michel Arribillaga ; altxatua : Jean-Léon Borthaire.

© D.R.



120

1980. Amotzeko Bestak. Zahagi dantza. Jean-Louis Borthaire, Andde Nemery, Beñat Jorajuria edo Christian Oscoidi, Michel Arribillaga, Jean Léon Borhaire.

© D.R.



121

1980. Amotzko Bestak. Xubero dantzak Zirikoltazeko neskek emanik.

Ezkerretik eskuinerat : Entseñaria : Hélène Larrea ; Gatuzaïn : Christine Guerre ; Txerrero : Monique Borthaire ; Kantiniertsak : Sylvie Estaynou eta Maritxu Darrigues ; Zamaltzain: Marie-Hélène Arribillaga.

© D.R.

Neska kaskaroeten jantzien sorkuntza

Kaskaroeten izenak	Gonetako diseinuak joare ttikien inguruan	Xingolen koloreak	Bizkarreko zinta
M.-H. Arribillaga		urddina + horia	urddina
M. Behasteguy		urddina + horia	urddina
F. Etchenique		urddina + horia	horia
M. Borthaire		urddina + horia	horia
F. Malcorra		ferdea + gorria	ferdea
Th. Soudre		ferdea + gorria	ferdea
M.-J. Çuburu		ferdea + gorria	gorria
R. Rodzen		ferdea + gorria	gorria
D. Daguerre		arrosa + ubela	arrosa
H. Larrea		arrosa + ubela	arrosa


122



123

Lapurtar dantzariak XX. mende hastapenean (?). Bertze gisa huntako batzuen artetik, argazki hauek biziki ezagunak bilakatuak dira azken denbora hauetan. Dudarik gabe lapurtar dantzariak ditugu hemen; gainean, fandangolariak eta beherean makilak eskuetan !





Zirikolatzen logoa, Paxkal Bourgoinek egina

Dantzari Eguna 1980-06-01. (Senperen)



126

Iparraldeko Euskal Dantzarien Biltzarren antolatu zuen egun handi hura egundaino izan den dantzari biltzar handiena bilakatu zen : 4.200 dantzari, 12.000 ikusliar ; orotarat 20.000 mila pertsona hurbil Baionako kirol zelaian !

Egitaraua. Goizean lehen urrats bezala, Iparraldeko EDBan dagoen talde bakoitzak errezebitu behar zituen, bere herrian, Hegoaldeko talde bat, bi edo hiru, ahalen arabera. Eguerditan otruntza Baionako “Remparts” edo Harresietan denek batean. Arratsaldean dantza saioa nagusia. Dantza batzuetan denal batean ; bertze dantzak probintzia bakoitzak bereak agertzen zituela. Ezin ahantzizko elkarretaratzea !

Goizean, beraz, Senperen bertan, hasi genuen eguna. Argazki huntan, Jauntzi berri-berriak emanik lehen-lehen aldikotz, Zirikolatz Senpereko Dantzari Taldea ateratzen da bere egoitzatik, errebotea zeharkatzen du eta elizarat buruz abiatzen, Meza Nagusian parte hartzeko, “Goizaldi” Gipuzkoako dantzari talde famatuarekin batera. Talde huntakoek, kontsekrazio ondoan, emanen dute « Ezpata ttikien » dantza bat miresgarria herriko elizan.

Dantzari Eguna 1980-06-01. (Senperen)



Goizean Senperen, gero, arratsaldean, Baionako kirol zelaian. Aitzineko argazkian ikusi dugu Mixel Bergara, ikurriñarekin ; ondotik zetozkion Lapurdiko ihauteriakoak :

Marikak : Sylvie Estaynou eta Agnès Etchenique.

Ponpierak : Maritxu Darrigues eta Maritxu Lecuberry.

Ondotik neska kaskarotak eskuinetik :

Urdinak : Marguerite Behasteguy eta Marie-Hélène Arribillaga ;

Horiak : Monique Borthaire eta Françoise Etchenique ;

Ferdeak : Françoise Malcorra..... eta Thérèse Soudre ;

Gorriak : Marie-José Çuburu eta Régine Rodzen ;

Arrosak : Denise Daguerre..... eta Hélène Larrea.

Dantzari Eguna 1980-06-01. (Senperen)



Ezkerreko lerroan doaz mutikoak :

Urdinak : Michel Arribillaga eta Beñat Jorajuria ;
Horiak : Jean-Louis Borthaire eta Jean Hirigoyen ;
Ferdeak : Christian Oscoidi eta Andde Némery ;
Gorriak : Jean-Léon Borthaire eta Paxkal Soudre.

Dantzari Eguna 1980-06-01. (Senperen)



129

Goizean Senperen. Elizatik ateratzea. Aitzinean Roger Elhorga txistularia, ondotik Mixel Bergara banderaria, gero Sylvie Estaynou (ezkerrean) eta Agnès Etchenique bi Marikak.

Dantzari Eguna 1980-06-01. (Senperen)



Goizean Senperen. Elizatik ateratzea. Mixel Bergara, ikurriñarekin, Mariken eta ponpieren aitzinean... Hauen ondotik lau « arrain saltzaile » gisa batez hauek ere edozein bezain kaskarotak direnak... Fabienne Boutan, Christine Guerre, Maite Hirigoyen, Michèle Larrea, Bénédicte Bourgoin, Marie-Dominique Gachen, Isabelle Lacarra, Agnès Astigarraga, Marie-Germaine Behasteguy, Dany Sallenave.

Kotilun gorri edo Mariken jauntziak frango erreski egin genituen. Buruko horiek eman zuten lan gehixago. Oinarrian, suhiltzaileen kasketa, aitzineko hegala pikaturik bistan da, gero goiti doazen adarrak burdin hariz elkarri loturik kasketari josi eta guzia polyester arraxinarekin elkarri lotu. Gero, azkenik jantzi eta apaindu.

Dantzari Eguna 1980-06-01. (Senperen)



131

Goizean Senperen. Elizatik ateratzea. « Arrain saltzaile », gisa batez hauek ere edozein bezain kaskarotak direnak... Fabienne Boutan, Christine Guerre, Maite Hirigoyen, Michèle Larrea, Bénédicte Bourgoin, Marie-Dominique Gachen, Isabelle Lacarra, Agnès Astigarraga, Marie-Germaine Behasteguy, Dany Sallenave. Ponpieren jantziak lan handia eman zuten. Burukoentzat, oinarrian txirrindularien kaska bat, gero hari nolazpait finkaturik delako euritako oihalik gabea forman emanik, eta guzia polyester errexinaz estalirik. Azkenik gaineko apaindurak bistan dena. Mariken ala ponpieren burukoak nihaurek egin nituen, saltegian berean, eta kinkailera eskumenean ukaitea laguntza handia izan zela erran gabe doa.

Dantzari Eguna 1980-06-01. (Senperen)



132

Goizean Senperen. Elizatik ateratzea. Ezkerretik eskuinerat : Dany Sallenave, Marie-Dominique Gachen, Marie-Hélène Arribillaga (hau doi bat gordea), Marguerite Behasteguy, Françoise Etchenique, Monique Borthaire, Andde Nemery, Christine Guerre, Christian Ozcoidi, Bénédicte Bourgoin, Jean Hirigoyen, Michel Arribillaga eta (hunen gibelean gordea) Jean-Louis Borthaire.

Dantzari Eguna 1980-06-01. (Senperen)



133

Goizean Senperen. Elizatik ateratzea. Jean-Léon Borthaire, Régine Rodzen, (Roger Idiart eta Henri Duhau solasean ari), Denise Daguerre, Paxkal Soudre, Hélène Larrea. Azken bi hauetan ongi agertzen da « arrosa » kolorea, bi neska, mutikoak baino gehiago ziren haientzat.

Dantzari Eguna 1980-06-01. (Senperen)



134

Goizean Senperen, meztatik lekora, errebotean. Ezkerretik eskuinerat : Beñat Jorajuria, Mixel Arribillaga, Jean-Louis Borthaire, Jean Hirigoyen, Andde Nemery, Christian Oscoidi, Jean-Léon Borthaire eta Paxkal Soudre.

Dantzari Eguna 1980-06-01. (Senperen)



135

Goizean Senpereko errebotean. Mutikoak bizkarrez : (ezkerretik eskuinerat) bi “gorri” (Paxkal Soudre eta Jean-Léon Borthaire), bi “ferde” (Andde Nemery eta Christian Ozcoidi), bi “hori” (Jean Hirigoyen eta Jean-Louis Borthaire) eta bi “urddin” (Beñat Jorajuria eta Michel Arribillaga). Orotarat, 8 mutiko.

Dantzari Eguna 1980-06-01. (Senperen)



136

Goizean Senpereko errebotean. Neskak aldi huntan, bizkarrez ezkerretik eskuinerat : bi “arrosa” (Hélène Larrea eta Denise Daguerre), bi “gorri” (Régine Rodzen eta Marie-José Çuburu), bi “ferde” (Thérèse Soudre eta Françoise Malcorra), bi “hori” (Françoise Etchenique eta Monique Borthaire) eta “bi urdin”, ageri ez direnak (Marie-Hélène Arribillaga eta Marguerite Behasteguy). Orotarat 10 neska.

Dantzari Eguna 1980-06-01. (Senperen)



137

Goizean Senpereko errebotean. Aitzinean Christian Oscoidi eta Françoise Malcorra ; gibelean Thérèse Soudre eta Andde Nemery, gero : Paxkal Soudre, Jean-Léon Borthaire eta Marie-José Çuburu.

**Zirikolatz Alsazian
Haguenau-n Nazioarteko festivala
1980ko irailaren 2-tik 9-rat**



Gaitzeko egonaldia egin genuen herrialde hortan. Gure parte-hartzea Victor Sturtz alsaziarrari eta haren emazte Mayi Sturtz Gachen euskaldunari zor diegu. Eskerrak bihotz bihotzetik. Zorigaitzez geroztik Victor galdu dugu eta zuri, Mayi, guk hemendik ere, gure elkartasuna adierazi nahi dautzugu !

« Pompier » bat ezkerrean eta gibeletik Zirikolatz taldeko bi « Marika » Lapurdiko ihauteriakoak. Han ziren mutikoak : Mixel Arribillaga, Mixel Bergara, Jean-Léon Borthaire, Jean-Louis Borthaire, Beñat Jorajuria, Andde Némery, Christian Oscoidi, Paxkal Soudre. Hazparnetik gure laguntzerat etorri zitzaizkigun : Bertolo Heguy, Petto Duhalde eta Duguine « Barrabas ». Eskerrak guzieri...

© D.R.

**Zirikolatz Alsazian
Haguenau-n Nazioarteko festivala
1980ko irailaren 2-tik 9-rat**



Zirikolatz taldeko Lapurdiko neska kaskarotak. Han zirenak : Marie-Hélène Arribillaga, Agnès Astigarraga, Marguerite Behasteguy, Marie-Germaine Behasteguy, Bénédicte Bourgoin, Marie-José Çuburu, Maritxu Darrigues, Sylvie Estaynou, Françoise Etchenique, Marie-Dominique Gachen, Christine Guerre, Maite Hirigoyen, Isabelle Lacarra, Hélène Larrea, Jeanine Némery, Dany Sallenave.

© D.R.

Lapurtarren Biltzarra
Zirikolatzen Lapurdiko ihauteria Uztaritzen (1980-10-05)



Zirikolatz Senpereko dantzari taldea han zen. Lapurtar ihauteriako kaskarotak, ezkerretik eskuinerat : Maite Hirigoyen, Monique Borthaire, Bénédicte Bourgoin, Christine Guerre, Jean-Léon Borthaire, Marie-Dominique Gachen, Mixel Arribillaga, Paxkal Soudre...

© D.R.

Lapurtarren Biltzarra
Zirikolatzen Lapurdiko ihauteria Uztaritzen (1980-10-05)



1980. Dantza-arteak, dudarik gabe, Zirikolatzeko dantzariantzat. Marie-Germaine Behasteguy « ponpierak » mozarroa edo maska altxatu du ; gibelean, Thérèse Soudre « kaskarota ».

© D.R.

1993. Zirikolatz dantzari taldeko kaskarotak Miarritzen.



Argazkia 142: Marie-Jeanne Bereau

Hemen neska kaskaroeten jauntziak ederki agertzen zaizkigu. Ezkerretik eskuinerat : Carine Ibarra, Christelle Ibarra, Marie-Noëlle Etchave, Isabelle Jamein, Béatrice Dolosor,?, Mirentxu Saint-Jean, Sandrine Dolosor, Marie-Hélène Bessonart, Maylis Bastres.

1993. Zirikolatz dantzari taldeko kaskarotak Miarritzen.



143

Argazkia 143: Marie-Jeanne Bereau

Hemen mutiko kaskaroten jauntziak ere hainbat ederki agertzen zaizkigu : Jean-Michel Bereau ezkerrean eta Christophe Bessonart eskuinean.

Zirikolatz dantzari taldeko bi kaskarot.



Argazkia 144: Marie-Jeanne Bereau

Milesker handi bat Marie-Jeanne Bereau – Ourricariet senpertarrari eskurat eman dauzkidan argazkientzat,

--142, 143, 144, 175, 176, 177, 178, 179, 180 eta 181 zenbakidunak harenak baitira.

IV.

Bertze usaiako ihauterien pizkundea Senperen

1979an berriz abiarazi ginuen “ihauteria arrunta” deituko duguna, delako Lapurdiko ihauteria berezi hartarik bereizteko. Urteak bazituen ez zela Senperen ihauteriarik ospatzen. Xuxen erraiteko ez dakigu noiztik ; gehienek diote 1955az geroztik ez dela ihauteria funtsezkorik izan Senperen.

1979an bazen Senperen kantari talde bat gaitza “Laminak” deitua eta sekulako arrakasta izan ere duena denbora batez. Talde hortako buruetarik bate, Joxet Lahetjuzan adiskidearekin (Zirikolatzen idazkari ianen dena geroxago), errexka izan zitzagun kantari horiekin harremanetan jartzea. Erran dezagun ere kantari talde hori behin baino gehiagotan ari izan dela gure dantzariekin ere, besta batzuen alaitzen eta harrotzen. Bertzalde, ikastola ere baitzen herrian 1971z geroztik.

IV.

Renaissance du carnaval “habituel” à Saint-Pée-sur-Nivelle

C'est en 1979 que pour la première fois, Zirikolatz va organiser le carnaval, que nous appellerons « classique » pour le différencier du carnaval typiquement labourdin dont il a été question jusqu'ici. En effet, le carnaval classique avait, lui aussi, complètement disparu chez nous depuis plus de vingt ans.

En 1979 il y avait à St-Pée un groupe de chanteurs dénommé « Laminak » qui avait un énorme succès. Nous les connaissons bien puisqu'ils étaient tous du village et qu'il nous était arrivé d'animer déjà des festivités ensemble. De plus, avec Joseph Lahetjuzan, un de leurs responsables (et qui sera secrétaire de Zirikolatz quelques mois plus tard) il nous sera donc très facile de nous mettre en relation concrète avec eux. Par ailleurs, il y avait une ikastola au village depuis 1971.

Zirikolatz dantzari taldeak proposatu zien, bai Laminak taldeari bai eta ikastolari, elkarrekin berriz ohoratzea denboraldi airos hori.

Lorietan onartu zuten eta denek batean, 1979ko otsailaren 24an ihauterien pizkundea ospatu genuen Senperen, beheraxago Herria astekari euskaldunean irakurriko duzuen bezalaxe ; ikus 145.argazkia.

Hemen ere beraz argi eta garbi ikusten dugu Zirikolatz-eko arduradunak euskal kulturaren sustatzea zutela helburu nagusia, ohiturak berriz indarrean ematearen bidez, bertzeak bertze. Euskal aro berri bat nahi ginuen zabaldu herrian eta gogo hori beti egon da gure lan guzien oinarrian.

1979an, gehienki, auzotegiak bisitatu genituen, larri-larria, kurrituz Urguri, Ibarrune, Amotze eta Hiruak bat. Azkenik errebotean bururatu zen guzia, alaitasunean (ikus 149. argazkia).

Ondoko urteetan etxez etxe ibiliko gara eta denak ezin eginez entseatuko gara orhoitzerat zoin etxetan ibili garen urte batez, bertze urtean bertze etxuen egiteko. Familia zaharretan ongi-etorrik hoberenak: usaia zaharrak ez zirela osoki galduaren frogatzen.

Et c'est ainsi que Zirikolatz proposa au groupe Laminak et à l'ikastola d'organiser ensemble la « renaissance » du carnaval à Saint-Pée.

Notre proposition fut acceptée avec enthousiasme et le 24 février 1979, nous célébrions à nouveau le carnaval à St-Pée comme vous le verrez dans l'article paru dans HERRIA, photo 145.

Il apparaît là clairement que les responsables de Zirikolatz ne perdait pas l'idée de faire corps avec tous ceux oeuvrent en faveur de la culture basque en général et cet esprit demeurera toujours au sein du groupe.

Cette année-là, en 1979, nous nous étions cantonnés à visiter seulement les quartiers Urguri, Ibarron, Amotz et le lotissement Hiruak bat pour finalement nous retrouver au fronton et terminer la journée tous ensemble. (Voir photo 149)

Mais dès l'année suivante nous fîmes du porte-à-porte. Les anciennes maisons de St-Pée nous réservaient toujours un très bon accueil, preuve que les vieilles traditions n'étaient pas encore effacées de la mémoire collective.

Baina kontu horiek ez ditugu xuxen atxiki eta Senpereko etxe zaharretan baikenuen ongi etorririk beroena haietan segitu dugu gehienki, ahal bezainbat hedatzerat entseatuz halere.

Gero, urtetik urterat, gauzak hobetzerat entseatu ginен. Lehen urtean Zanpantzaz errebotean errez eta errebotea hain zabala izanik, ez ginuen nahi bezainbat giroa berotu ahal izan; denek badakigu alabaina, giro bero baten sortzeko, jendeak tinko-tinkoa behar duela izan. Erabaki ginuen beraz ondoko urteetan lekuz aldatzea.

Horrela, lehenik Herriko Etxeko aitzinerat ekarri ginuen Zanpantzaz erretzeko, eta gero berriz elizako plazan, Lekuona – Etchegaray aitzinean, “berotasun” gehiago sortuz holaxe. Gero haatik berriz urrundu behar izan zen segurtasun neurrien gatik.

1986tik goiti, Zanpantzaz erre aitzin, epaiketa edo jujamendu bat egiten zitzaion. Hori ere aurkitu duzue 172. eta 173. argazkietan.

Epaiketa hori euskaraz izanik, itzulpen labur bat egiten zitzaion frantsesez... Epaiketa hortan egia erran ez ginuen sartzen herriko arazo eta eztabaidea handietan. Denentzat onargarriak izan zitezkeen « bekatuak » ginituen bakarrik salatzen.

Ne pouvant visiter toutes les maisons, nous essayions de passer une année dans telle maison et l'année suivante dans telle autre maison... Mais cette manière de faire ne fut pas toujours respectée...

La première année en brûlant Zanpantzaz au fronton, nous n'avions pas réussi à réchauffer l'atmosphère et, l'année suivante, nous avions donc pensé mettre un peu plus de chaleur en allant dans un espace plus resserré, plus propice à créer une certaine ambiance.

Ainsi donc nous voilà l'année suivante devant la mairie pour brûler Zanpantzaz, puis plus tard devant chez Lecuona – Etchegaray. Mais après il nous faudra repartir au fronton pour des raisons de sécurité.

À partir de 1986, avant de brûler Zanpantzaz, on le jugeait très solennellement comme vous le verrez dans les photos 172 et 173.

Ce jugement était en langue basque avec un court résumé en français. Mais, dans nos « réquisitoires », on n'entrait jamais dans les problèmes concrets du village, seules les tares de la société en général y étaient brocardées.

Badakigu zaharragoko batzuek erranik, hala-nola, François Aniotz « Xantxun-baitakoak » zer nolako salaketa gogorrak gertatu diren denboraz Senperen ihautekari edo eta “Astolasterrak” edo “galarrotsak” deitu batzuen karietarat.

Ez da harritzeko, denbora haietan, astearte ihautez, kristau batzuk elizarat joaki baziren, apezak galdeginik, egun guzian otoitz egiterat, plazan gazteek eginen zituzten "bekatuen" barkamena eskatzeko Jainkoari !

La prudence était de mise car des problèmes sérieux secouaient le village et Monsieur François Aniotz, le boucher du village, m'avait dit qu'à une certaine époque des carnavals avaient été très virulents à l'égard des édiles locaux et avaient mal tourné...

Il n'est donc pas étonnant, qu'à une certaine époque, le jour du mardi gras, des chrétiens du village, à la demande du curé, allaient prier à l'église toute la journée en expiation des « péchés » commis par les jeunes...

HERRIZ-HERRI

SEN PERE

Ihauteriak

Ehun baino gehiago haur eta gazte bildu dira gure herrian, larunbatarekin otsailaren 24-ean, batzu maskatuak, bertzeak beztituak berek asmatu jauntziekin. Lehenik multxoak ibili dira kartieretan etxez etxe, eskea eginez : « xingar eta arroltze, bat edo bertze, biak oro bat ». Gerroxago burraso hainitzekin, herriko karrikak alegeratu dituzte xixtu eta dantzakin. Azkenerat pilotak plazan bildurik eman dituzte lehenagoko Ihauterietako dantzak eta erre San Pantzar. Arratsalde goxo hori bururatu dute suaren inguruan, bilduak zituzten xingar eta arroltze moletak eginez eta janez.

Ikastola, Zirikolatz-Spuc, Laminak batasuneko gazte eta menbroek pentsatzen dute, urte guziz erreberritzea Ihauterietako usaiak eta millesker diote Senpertar emaile guzieri heldu den urte arte.

Hirugarren Hitza

Ganden astean jadanik erran bezala berritz ere gaztiaztzen dugu : « Hirugarren Hitza » antzerkia, Heletar gazte batzuek emanen dutela Zine-

mako Salan ilabete hunen 24-ean, larunbatarekin, arratseko 9 orenetan.

Pilota

Ganden igandean gure plekariek egin dituzte esku huska negu hunentzat trinketeko azken partidak gutiz gehienentzat.

— Frantziako xapelgoaren buruz-burukako finalerdietan Garatek aise amor eman du Dargel Mauletarrari.

— Union Basque xapelgoan Behauzeko trinketeko finaletan Amestoy anaiek irabazi dute Donapaleutarreri.

Jorajuria eta Çuburuk galdu dute Uztaritztarren kontra.

Gelditzen zaizkigu bakarrik zaharretan Bonnet eta Borda oraino barne.

Garaитikoek itzuliko dire erreboterat buruz.

HERRIA 1979-03-15

ZANPANTZARREN EPAIKETA (1986)

Epailea : Zanpantzar, hemen zare zure krima guziez kondu emateko, jan edanetan etsenplu gaixtoak eman dituzu, eta zu zarela kausa izan dira gutartean nahasmendu ikaragarriak. Baduzu abokatik?

Zanpantzar : Bai, jaun Epailea. Ondoan dut eta mintzatuko daenean alde.

Epailea : Abokat jauna, eman zaite Zanpantzarren eskuinean. Prestatu bide duzu haren defentsa?

Abokata : Ba jauna. Jaz ere abokata nintzen okasione berean.

Epailea : Bueno!... Orai usaian bezala, adi ditzagun zonbait lekuko. Ea, Mari-Antoni, hurbil hunat. Zin egizu, eskua altxatuz, egia erranen duyula, egia osoa, eta egia hutsa, deus emendiorik gabe.

Mari-Antoni : Zin egiten dut! Horra!

Epailea : Zer pasatu da ihauteria huntan?

Mari-Antoni : Izan dela jate, edate, hizkatze, panpatze, moxkor, konkor, eta minkor, makil-ukaldi, mihi ukaldi, ukumil-ukaldi.

Epailea : Ta, ta, ta, ta, ta... Horiek oro... orotakoak dira... Xehetasunak behar ditugu: nork, nun, noiz, zer egin duen...

Populua : Bai, xehetasunak, xehetasunak!

Mari-Antoni : Xehetasunak nahi baditutzue huna: Zubiburuko Mattin igande aratsean ikur-makurka heldu zen, bera mintzo, boneta galdurik: bere etxea ez du ezagutu, hain zen edana; eta Etxeberrikobordan sartu da Mari-Luixa besarkatu nahiz, ustez-eta bere emaztea zuen...

Populua : Ho! mihi gaixtoa! — Salatari-malatari. — Ez dun hire afera. — Jaun Epailea, ixil-araz zazu zantsana hori!

Epailea : Bueno! Mari-Antoni, baduzu aski erranik. Joanes Bordatoren aldi... Bordato, egizu usaiako zina!

Bordato : Zin egiten dut. Horra!

Epailea : Zuk zer jakin duzu ihauteria huntako aferez?

Bordato : Soberasko jan-edanik, Xixon-ek bildu du tripako min bat izigarria; Popol-ek gau bat pasatu erreka batean, uria, izan balitz ur zorta baten edaleko irriskuan; igande aratsean Mari-Antoni, zaiak buru-gainerat bildurik zabilan gibel-aldea freskatu beharrez.

Mari-Antoni : Gezurra! Bordatok zernahi pentsatuko du bertzen fama zikindu beharrez.

Populua : Egiak behar du bere bidea. — Egia guziak ez dira erraitekoak. — Eskandala hutsa da auzi hau!

Epailea : Aixtian denak xehetasun galdez, orai xehetasunen beldur! Lekukotasunak utz ditzagun, eta mintza bedi prokuradorea.

Prokuradorea : Jaun-andereak, gauza den bezala erran behar dut. Eginbidez eta ofizioz Zanpantzari trixta hau kondenaraztekoa dut, nahiz leku koek ez duten hitzik erran haren kontra. Funtserat-eta ez du biziki importa...

Zanpantzar : Enetzat biziki importa du... Ez nuke hil nahi!

Epailea : Zaude ixilik, Zanpantzari, utzazu jaun prokuradorea bere lanari...

Prokuradorea : — Erraiten nuen bada Pantzar hemen dugula, mozkor eta deboxa guzien petzero eta aintzineko. Harek pekatuko ditu ihauteria hantan guzian izan diren makur guziak. Ai gormandizaren ondorio ikaragarriak... Mariunek bildu du beheitikoa, Josepak, goitikoa, Jakesek gibileko zirrosa, Agustinek estomakako zauri bizia, Pedro-Marik itoia, Intxidrok albumina, Erramunek diabeta. Eritasunez bertzalde, tripa dela kausa, zonbat mokoka ez da sortu, zonbat lizunkeria, zonbat moltsa ez da tturindu, zonbat etxe erori... Gaitz horiek guziak Zanpantzari hunek behar ditu bere biziaz pagatu...

Epailea : Abokata mintza bedi.

Abokata : Bonus, Bona, Bonum... Gaitzak badu bere abantaila, ifrentzuak bere aldea bezala. Zanpantzari triparen aintzineko balinbada, eskerrak merexi ditu eta ez laidoak eta akusamenduak. Tripa da jende guziak bizi arazten dituen mekanika baliosa. Zer bilaka litazke osta tuak ez balitz jalerik, ez edalerik? Arnoak ez balu mentarik zertako ginituzke mahastizainak? Arrainkiak ez balu arrakestarik, zertako arraintza? Xerrikiak, zikirokiak, idikiak ez balute tirarik, zertako ginituzke urdezain, artzain eta azindagorri hazleak? Gisa berean jalerik ez balitz, ez ginuke baratzezain beharrik. Ken ofizio horiek, suntsi litazke bertze gehienak: arotz, ehaile, dendari, marexal, eta denak.

Epailea : Jaun abokata, iduri du espres ahanzten ditutzula aixtian aipatu izan diren gaitzak!

Abokata : Ez zaizkit batere ahanzten, jaun Epailea! Eritisunik ez baginu, lanik gabe litazke mediku eta botikarioak; ez baginu bekaturik apezak deusetako ez ginituzke; eta ez balitz behin ere deus makurrik gertatzen, sobera gintazke mundu hantan abokat, prokuradore eta Epaileak, salbu eta zure errespetua...

Populua : Egia handia!

Prokuradorea : Jaun abokata, ba ahal dakizu mahainak gerlak baino jende gehiago hiltzen duela. Gauza horrek ez zaitu poxi bat kezkatzen?

Abokata : Kezkatzen? Ez, den mendrenik ere! Heriotzerik ez balitz, zer egin lezakete hil-hobi egileek eta hil-kutxa egileek? Bainan hau litake txarrena:

haurrak sortzearen bortxaz ez ginakikela mundu huntan nun koka, huts lagozkelarik zerua eta... ifernua.

Epailea : Gauzak ontsa pizaturik, Zanpantzat, hiltzerat kondenatzen dugu.

Zanpantzar : Oh!

Epailea : Abokatak erakutsi baitauzku zure merezimenduak, deliberatu dugu eginen dautzugula fagore handi bat...

Abokata : Esker mila, jaun Epailea, Zanpantzarren izenean.

Epailea : Ez da zeren... Beraz, Pantzar, zuhauk hauta, ala nahi duzun kordaz urkatua izan, ala armaz fusillatua. Bertzalde hil-eta nahiago ote duzu plazan erre zaitzagun ala zubitik urerat bota?

Zanpantzar : Azken pundu huntaz erranen dautzut jaun Epailea, ez dudala sekulan maite izan ura, garbitzeko bakarrik. Aldiz, hiltzeko moldeaz, beharko nuke, hautatzeko, denbora poxi bat. Lepoa biziki kilika dut eta banago ez dutan korda latzegi kausituko. Aldiz beharriak izigarri minbera ditut; ez dakit buruko minik gabe jasaiten ahal dutanez armen arrabotsa.

Epailea : Hala beharrez, kotoin-kanika batzu emanen dauzkitzugu beharrietan...

Populua : Erre ! Erre ! Erre ! Erre ! Erre !

**“Hire pantza handia arnoz duk betea...
Hor omen duk itorik herriko bakea”**

Hau ere bertze nunbaitik datorrena :

**“Etzakala gaizki har oi gure Zanpantzar
Gure etxeana bihar, duk bazkaldu behar !”**



146. 1979-02-24. Lehen ihauteriak eta menturaz lehen argazkia ere. Bidez bide abiatu aitzin, Marie-Jeanne Lassaga-k egin Zanpantzarri begira, palto gorriarekin Paxkal Duhau et Mendy anaiaik, gero bizkarrez Henri Duhau kamera batekin, ondoan, bizkarrez hura ere, Michel Arribillaga. Eskuin aldean, gainbehera so, Gérard Garat dateke, ondoko urtean zendu zena eritasunez.

Orga ttikia Arnaud Daguerre adiskideak prestatua, hura ere zendua geroztik. Orga horiek arras egokiak gertatuko dira Zanpantzarren eremateko...© D.R.



147.1979-02-24. Karriketan gaindi. Orgatxoen eramaile, Michel Arribillaga. Eskuinatarik Auxtin Zamora ikastolaren izenean...© D.R.



148

148.1979-02-24. Karriketan gaindi, Zanpantzaren ondotik, Herriko Etxearren aitzinetik...© D.R.



149

149. 1979-02-24. Errebotean Zanpantzar erre aintzinttoan, haren inguran dantzan, Lantzeko ihauteria...© D.R.



150

150. 1979 ala 1980ko udan (?) «Laminak» Senpereko kantari multxo bikaina. Ezkerretik eskuinerat : Martin Sanchez, Joset-Antton Bergara, Michel Dorratçague, Jean-Léon Bessonart, Etienne Sanchez, Pierre Zamora, Alain Dalis, Claude Perez, Marcel Brave (gitarrarekin), Michel Lahetjuzan, Jean-Léon Dorratçague, Joseph Lahetjuzan, Estebe Fagoaga. © D.R.





152

152. 1980-1981. Txistulariak. Ezkerretik eskuinerat: Paxkal Duhau, Paxkal Lahetjuzan, Michel Arribillaga, Jean-Christian Hourcastagné (musika irakaslea) eta Jean Hirigoyen. © D.R.



153

153. 1980-02-23. Olako auzotegian eske eta ziminoa egiten... © D.R.



154

154. 1980-02-23. Aitzinean Jean-Louis Borthaire eta Christian Ozcoidi.
Goraxago ezkerretarik : Monique Borthaire. Eskuinetarik : Sylvie Estaynou.
© D.R.



155

110. 1980-02-23. Fandango bat bide sahetsean...



156

156. 1981-02-28. “Jaun esposa” Maritxu Darrigues, behazu horri ; nork erranen zuen... © D.R.

157



157. 1981-02-28. Zirikolatz eta ikastolako haurrek Herriko Etxearen aitzinean. © D.R.

158



158. 1981-02-28. Zirikolatz eta ikastola. Otarrearekin Frédérique Etcheverria eta Irabola. © D.R.



159. 1981-02-28. Zanpantzar erretzen ari Herriko Etxe aitzinean : zer kopeta ! © D.R.



160. 1982-02-21. Bidez bide, karriketan barna zanpantzar ohetik jeikiarazi dute gaizoa... © D.R.



161. 1982-02-21. Zanpantzar erre aintzinttoan... © D.R.



162. 1982-02-21. Zanpantzar erre ondoan dantza piko bat... © D.R.



163. 1983-02-12. Zanpantzar gaizoarentzat azken orena hurbildua... © D.R.



164. 1983-02-12. Dantza-josteta... © D.R.



165

165. 1984-02-11. Bidez bide, txistulariak. J.-Ch. Hourcastagné, Peio Behasteguy, Maritxu Behasteguy, Paxkal Duhau... Maritxu Darrigues haurrez arta hartzen. © D.R.



166

166. 1984-02-11. Zanpantzaris ibilki, Jean Faches adiskide geroztik zenduak zaintzen duela. © D.R.



167

167. 1985-02-23. Argazki guti baina haiak argiak iguzkiari esker! Platana ondoaren gibelean, ezkerretarik zer ikusten dut ? Marie-Hélène, ene emaztea !!! Hainbertze lagundi nauena... © D.R.



168

168. 1985-02-23. Abiatu aitzin akitzen hasiak ? © D.R.



169

169. 1986-02-22. Bidez bide... © D.R.



170

170. 1988. Hemen zakuak indarrean ! Aspaldian gure etxearen ziren zaku zaharrekin eginak. Ezkerrean Marie-Jeanne Bereau ; eskuinean Henri Duhau. Norat abian ginen ote ? © D.R.



171. 1988-02-13. Zanpantzar ospetsu baten inguruan... M.-Jeanne Bereau zaindari... © D.R.



172. 1988-02-13. Zanpantzar gaizoa epaitua izanen da eta zer epaitegian. Pierre Camino ari da bere rola ikasten eta Pierrot Etchave jadanik airos : besta hasterat doa ! © D.R.



173. 1988-02-13. Zanpantzar jujatzen ari dute... Mañu Millox "Abokata", Frédérique Etcheverria "Jujea", Marie-Hélène Bessonart "Prokuradorea"... © D.R.



174

174. 1988-02-13. “Gaztetasuna, gauza ederra”, nork erran dezake bertzela ?
© D.R.



175

Argazkiak 175 eta 176 : Marie-Jeanne Bereau

175. 1991. Mañu Millox "serora", Marie-Hélène Bessonart "serora", Frédérique Etcheverria "apez handia", Noël Goikoechea "apez ttikia", Mirentxu Saint-Jean (xuriz), Christelle Ibarra "abokata", Raphaël Elhorga "beretter", Stéphane Zamora "beretter".



176

176. 1991. Céline Munduteguy, Sabrina Larzabal,...?, Maider Camino, Céline Michelena, Pantxika Zamora, Leatitia Jamein-Risso, Mirentxu Ibarra, Céline Astigarraga (gibelean).



177

Argazkiak 177 eta178 : Marie-Jeanne Bereau

177. 1991. Ihaute Senpereko karrika nagusian...



178

178. 1992. Sébastien Berrouet, Txomin Bereau, Stéphane Zamora, Estebe Borthaire, Mattias Dunogues, Benoît Darrigues, Noël Goikoechea, Raphaël Elhorga.



179

Argazkiak 179 eta 180 : Marie-Jeanne Bereau

179 Noiz nun ???



180


180. 1992. Ihaute ; Zanpantzar airoski erretzen ari dute Zirikolatzen egoitzaren aitzinean.



181

Argazkia 181 : Marie-Jeanne Bereau

181. 1992. Jean-Michel Bereau, "Hartza" bere lozorrotik atera da, udaberria hurbiltzen ari.




182. 1984ko afitxa, gure ustez Paxkal Bourgoin-ek egina.



183. eta 184. 1988ko afitxak Paxkal Bourgoin-ek eginak.





185. 1989ko afitxa bat haurrek berek egina.

Achevé d'imprimer mars 2010



Liburuaren gibeleko estalia

GEHIGARRIA / SUPPLÉMENT (2020)

LAPURDIKO IHAUTERIA ETA MUTXIKOEN PIZKUNDEA

liburua atera ondoan

prentsan agertu ziren zenbait lerro

eta zenbait argazki

Milesker guzieri ! H.D.




**2010-04-05. Sarako idazleen Biltzarrean Henri Duhau, Piarres Ainciart
eta Alexandre de la Cerdá-ren ondoan. © D.R.**

“Lapurdiko ihauteria eta mutxikoen pizkundea”

Henri Duhau senpertar idazle argiak ez du huts egin bixtan da Sarak Pazkokari muntatzen duen biltzarra. Idazleen Biltzarrak alabainan. Eta egun hortan bazuen segur nun zer erran eta nun zer egin. Alde batetik, Euskaltzaindia babesle, argitaratu baititu bi liburu gotor **Zaldubi** zenaren obra nasaiaz. Bestetik, plazaratu baitu liburu eder bat, izaiten ahal den bezen herrikoia, beti arrunt berea ukantzen gai batu buruz, tituluak berak aski garbi salatz zertaz ari den: “**Lapurdiko ihauteria eta mutxikoen pizkundea**”.

Berrehan orrialde ausarkian badituen liburu hortan kausi ditazke lekukotasun batzu bizi baliosak, gure ihauteriako ohidurak nola berriz azkartu diren eta nola mutxikoek berriz bildu duten gaitzeko arrakasta...

Hasteko, aitzin-solas batean, berak kondatzen du noiz eta nola plantatu zen holako lanari, beste guzien arteetik hori ere behar zuela akulatu: **Thierry Truffaut** ikerle ezagutuak zion galdeku 2007-ko udazkenean etzuenez bada xeheki kondatzen ahal zer egin zuen Beskoitzen eta Senperen Lapurdiko ihauteria berriz pizteko xedetan. Egina zitzzion galdeari baikorki ihardetsiz, hasi bazezen hasi, arras berotu ere zen Henri Duhau. Berak dio aski poliki: “ezin gelditua ere lotu zait. Bil



Henri Duhau Sarako biltzarrean

eta bil, sar eta sar, ene lantoa beti lodituz joan da...”

Beskoitzen, Oinak-Arin taldearekin

Liburuaren lehen zati batean Henri Duhau ari zauku beraz konda eta konda nolako giroa zen Beskoitze bere sort-herrian, duela kasik berrogoita-hamar urte, hain xuxen 1964-ean. Konda eta konda zer egin zuen hiru urtez segidan bazterrak euskaldunki harrotu beharrez. Besta asko antolatu eta bestetako **Otxalde** famatuari eskaini zen omenaldia. Bainan indar handia egin ere euskal dantzaren alde, **Oinak-Arin** elkartea muntatuz, talde horren

lehen urratseri lotua baita Lapurdiko ihauterien berpiztea. Sail hortan arta handirekin bermatu ziren beskoitzarrak eta bereziki **Noel Guécamburu**, berenaz dena hortakoa zena. Oinak-Arineko dantzariek beren lehen ikusgarria Beskoitzen berean eman zuten 1964-eko uztailaren 26-an, Oldarra-ko zonbait lagun ere jinik heien ganan. Ondoko urtean, Lapurdiko ihauteria zuten agertu bere jauntzi koloretsuekin eta hori lehen aldiz Baionan, ortzegungizten egunean. Berrogoita-hamar bat gazte izan ziren parte hartu zutenak, kaxkarot, kotillun gorri, buhami eta beste, berak loriatuak eta heieri so egon zirenak ere ba!

Horiek oro xarmanki kondatzen ditu Henri Duhau-k bainan hau ere behar da azpimarratu: erraiten duenaren oraino hobeki finkatzeko nolazpait, orduko artikulu, affixa eta argazki asko sartu dituela liburuan, hau gisa hortan oraino baliosago bilakaraz...

Euskal Dantzarien Biltzarra akulatzale

Bigarren zati batean, Henri Duhau-k argitan ezartzen du **Euskal Dantzarien Biltzarrak** ereman sail guziz baliosa. Ez gira xehetasunetan sartuko bainan liburia eskuratuko duten guziek aintz estimatuko di-

tuzte segur hor ezarriak direnak oro, hala nola **Dantzari Eguna** besta arraoaz diren orrialdeak. Oroitarazten daukute lehena **Kanbon** muntatu zela 1971-n, ondotik beste batzu izan zirela zinez miresgarriak, konparazio **Baionakoa**, 1980-ean, 4.200 dantzari bildu baitziren eta 12.000 jende ikusle! Horietaz denetaz ere artikulu eta argazki frango dira leku. Artetik erraiteko, **HERRIA** astekari huni toki ederra egina zao. Egia erran, aldi bat baino gehiago gure lehen orrialdea ere besta hortaz egina izan da...

Liburuak daukan hirugarren zatia ez da segurki txarrena. Hor **Senpere** da gehienik aipu eta beraz **Zirikolatz** taldea. Gehienik lehen urteak, 1979-tik aitzina, bai eta mutxikoen berpiztea.

Hortan geldituko gira bainan bururatzeko nola ez aipa Henri Duhau-k aitzin-solasean zabaltzen duen dei suhar eta argia? Hauxe diola: “Orai gure esperantza da gazteak bilduko direla dantza bateratzailearen inguruan, gu joan ginen baino urrunago joaiteko, usaia xaharrak ximenki begiratuz batetik eta bertzetik sorkuntza ere lanutz hoin ederk hastiak diren bezala.” Agian bai eta goresmenak Henri Duhau-ri holako lan aberatsa plazaraturik, denen atseginingarri...

Musilaria

SAINT-PÉE-SUR-NIVELLE


Dix ouvrages de Senpertars au Biltzar des écrivains

Le lundi de Pâques, des écrivains senpertars ont présenté leurs livres à Sare. Frank Dolosor a rassemblé des témoignages du siècle précédent, Michel Mendiboure s'est intéressé aux procès en sorcellerie en Labourd en 1609, rassemblant tous les témoignages des conférences données sur le contexte durant 2009 avec, en couverture, la sculpture de Nestor Basterretxea.

Joset Lahetjuzan, au travers de ses ancêtres, a relaté les tristes déportations des Saratars à la révolution française ainsi que les écrits bascophiles du prêtre réfractaire, Dominica Lehetjusan. Auxtina Lassegue et Auxtin Zamora, fondateurs du groupe des poètes Hatsa, et Henri Duhau (qui a écrit sur le carnaval labourdin lié au mutxiko). Alors que l'auteur était absorbé dans sa tâche biographique du chanoine Adema-Zaldubi dont il avait déjà publié 4 tomes sur 7, Thierry Truffaut l'a sollicité pour son témoignage de la renaissance du carnaval labourdin.

La danse basque honorée

Depuis sa jeunesse en 1965 à Briscous, Henri Duhau est devenu partie prenante des danses basques pendant trois décennies. Sous l'impulsion de Noël Guécamburu, le groupe Oinak Arin de Briscous, après avoir attiré les jeunes dans les danses avec sauts et



Le mutxiko des Fêtes de Bayonne illustre l'ouvrage de Henri Duhau PHOTO C. ETCHANDY

lancer de jambes, a voulu faire revivre le carnaval labourdin avec ses costumes dont les célèbres kotilun gorri, les besta gorri, les kaskarots... Sa première sortie eut lieu le jeudi gras 1965 à Bayonne.

Henri Duhau parle de l'importance d'Euskal Dantzarien Biltzarra née vers 1965, qui a rassemblé plus de 2 000 danseurs venus des 7 provinces, dans la renaissance de la danse basque. Le 2 mai, Dantza reguna aura lieu à Bayonne. Senpertar depuis les années 70, Henri Duhau s'est investi dans le groupe Zirikolatz dont il fut le président et où il a fallu créer et fabriquer les costumes féminins des kaskarots.

Et dès 1979, Zirikolatz va réintroduire le carnaval avec l'aide du groupe de chanteurs local les Lamainak et de la toute récente ikastola (1971).

À cette époque, confie l'auteur, le jugement de San Pantzar n'inclinait que des critiques générales, pour éviter la venue aux mains. Les 200 photos qui illustrent l'ouvrage sont les témoignages de la renaissance de la culture basque par le biais de la danse, âme du peuple basque, comme en témoigne la photo de couverture : mutxiko géant aux Fêtes de Bayonne.

Claude Carlier

GURE HITZA

Eragile

Euskaltzaindiak argitaratzen duen Plazaberry aldizkarian, berrikitan irakurtuak ditut lerro hauk, Andres Urrutia euskaltzainburuaren solas batzu, ohorezko euskaltzain berriak agurtzen zituela: "Eragile, horra hor hitza. Hori dut nik gostuko. Hori duzue zuek ere gostuko. Horixe erakutsi duzue, eragin handikoak zaretela euskal kulturan eta eragin luzeakoak nahi zaituztegu Euskaltzaindian eta euskal munduan". Eragile, Hitz ederra segur. Aitorra behar dut haatik arras berria dela guitarik askorentzat. Luzaz eta luzaz, Iparraldean guti erabili dugu. Arrunt guti edo baterez. Baina orai hartua dugu, arras guretua eta gure gosturat baliatzen. Gisa berean eragin eta eraginkor, erro beretik heldu zaizkigunak.


Eta denen buru nor da eragile? Bere sailean azkar eta sanoki bermatzen dena gauzak aitzin-arazi beharrez, mugitzzen dena gure nortasuna eta gure ondarea begiratzea gatik, kartsuki ari dena funtsezko garapen zerbaitean axola handiarekin... Eremuak zabal daude eta bada beraz aintz eragile mota. Herri-Urrats hurbiltzen arreta, nola ez aipa konparazione ikastolak sortzen dituztenak eta gero bizi-arazten, traba guzien gainetik, ikusiz badela hor bide bat guziz egokia euskarak iraun dezan gure herrietan. Eta hori da alor balios bat beste ainitzen artean. Erakaskuntzan berean, beste adar batzuetan ere, badira eragile xintxoak, lan ederra egiten dutenak. Eta badugu funtsean denen beharra gaurko egunean. Kulturaren, ekonomian, kirolaten berdin, zernahi giseterat eragileen lanak munta handi-handia dauka, hori nork ukatzen ahal du? Kulturaren mundu hortan eman dezagun, zertan gintazke ez balire ba eragile kartsu eta jarraikiak kantua, dantza, bertsularitza, literatura, antzerkia, musika eta gaineratikoa bultzatzeko, lehengoa begiratuz eta denbora berean sorkuntzak sustatzak, Henri Duhau euskaltzale bikainak aski ederki dion bezala berriki plazaratu duen liburu batean. Gure gazteek laneko segida manerako bat segurta dezan herriari berean, horri buruz ere zonbat urrats ez da egiten, frangotan aski egoera zaila izaiten delarik, hor ere badira beharrak eragile erneak eta ausartak...

Gauden bada ahal bezen eragile. Erran nahio baita langile bero eta jarraiki. Sail guzietan. Sail premiatsuenetan kausi ditakeelarik gure gostuko segurik Batera-k sustatzen duen hori, Ipar-Euskal-Herrriak ukana dezan egitura berezi bat bere nortasunaren legezko ezagutgarri...

Janbattitt Dirassar

2010-04-29

BERRIA (2010-05-16)



Lapurdiko ihauteria eta
mutxikoen pizkundea

**'LAPURDIKO IHAUTERIA
ETA MUTXIKOEN
PIZKUNDEA'**

- **Egilea:** Henri Duhau.
- **Argitaratzalea:** Henri Duhau (egile-editore).

Argazkiz oparo lagunduta, Lapurdiko ihauteria eta mutxikoen pizkundearen historia idatzi du Henri Duhau, nahiz eta, berak dioenez, «ikertzaien» gain utzi «xehetasunetan sartzea». Xede nagusia egin den lan miresgarriaz ohartaraztea da.